

LANDA MERKATARITZA

«Atzo eta gaur», Arabako herri txikietako denden istorioak, mendebeteko historia

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Arabako landa eremuko herri txikietan izan diren eta diren hainbat dendaren istorioak bildu ditu Karmentxu Intxaurreagak AKE Arabako Kontzejuen Elkarteak argitaratutako «Atzo eta Gaur» liburuxkan. Atzera begirako lana ez ezik, aurrera begirakoa ere bada, denda horiek herri txikien elkargune eta bizitza direla uste baitute.

Orain oso aspaldi ez dela, Arabako herri askotan janari-denda txikiak zeuden. Denda horiek eskuarki taberna ere baziren, baina, oroz gain, herri horietan bizi ziren gizon-emakumeen elkargune. Ohiko tabernak ez bezala, edariak ez ezik, askoz gauza gehiago ere eskaintzen zituzten saltokiak ziren. Janariak, arropak, lanabesak, tabakoa... eta gaur egun horrelako lekuetan pentsaezinak diren zerbitzuak eskaintzen zituzten, hala nola

posta, telefonoa eta are, zenbait kasutan, mediku kontsulta ere.

XX. mendearen erdialdetik aurrera, industrializazioarekin, garraio pribatuarekin eta telebistako iragarkiekin batera, herri txikietako jende askok hirira jo zuen eta herriko bizitzan hain garrantzitsuak ziren denda haiek desagertzen hasi ziren.

Arabako 300 biztanletik beherako zenbait herritako denden historiaren bidez, herri horien historiaren parte garrantzitsua kontatu du Karmentxu Izagirre soziologoak

Amona Andresa bere seme-alabekin, Zaldueendoko dendaren parean.
«ATZO ETA GAUR». AKE



“Atzo eta gaur” liburuxkan, azken urteotan AKE Arabako Kontzejuen Elkarte herri merkataritza zerbitzua sustatzeko egiten ari den lanaren erakusgarri. XIX. mendearen erdialdetik gaur arte izan diren eta oraindik badiren denden istorioak dira. Argitalpenaren xedea, batetik, landa eremuan desagertu diren edota iraun duten saltoki txikien istorioak berreskuratu, prestigiatu eta oroimenean atxikitzea da, eta, bestetik, landa merkataritzaren balioa nabarmentzea, herri txikiek bizirik iraun dezaten, hurbiltasun, zerbitzu, produktu eta elkargune gisa erreferentzia izanda.

Karmentxu Izagirrerengana jo dugu lanaren nondik norako nagusien bila. Berehala hasi da denetariko azalpenak ematen. Landa lana gustukoa izan duela eta zoragarri pasatu duela dio hainbeste gauza kontatu dizkieten lagunekin. Nabari zaio. «Saiatu gara istorio horietako bakoitzak arima propioa izan dezan», nabarmendu du. Lan hori osatzen lagundu dioten guztiei bere esker ona agertzea ere ez ahazteko eskatu dio GAUR8ri: istorio horien eta beste hainbaten berri eman dioten herrietako bizilagunei, Iñaki Jauregialtzo *Jaltzo* eta Haizea Etxeberria Zelaiari beren lankidetzagatik, eta Andere Arriolabengoa eta Manex Agirre bertsolariei.

Arzo

XIX. mendearen amaieran komunikazioak nabarmen hobetu ziren. Ordurako abian ziren Madril-Hendaia trenbidea eta Bergararik Lizarrarainoko bidea egiten zuen Vasco-Navarro izenekoa. Herri txikietan hainbat familia-negozio zabaldu zituzten. «Herri horietako dendak saltoki hutsa baino askoz


gehiago dira, elkargunea dira, harreman lekua eta zerbitzu gunea», dio Intxaurragak. Zerbitzu horiek hamarretik gora kilometroko erradioko inguruan zeuden bakarrak ziren; horrenbestez, inguruko herri-herrietako lagunentzat ere elkargune eta zerbitzu gune ziren. Zenbait lekutan dendaren inguruan festak antolatzen zituzten, bola-jokoan jarduten zuten... Beraz, giro ona sortzen zen lekua ere baziren.

“Atzo eta gaur” liburuaren lehenengo atalean, “Zenbat aldiz... zenbat istorio” izenburupean, garaiaren testuingurua deskribatu eta XIX. mendearen amaieran zabaltzen hasi ziren saltoki horien istorioak agertzen dira, eta, horien bidez, mende batetik gorako historia eta kultura. Andere Arriolabengoaren bertsoak ondo laburbiltzen du zer ziren denda haiek: «Gure ortutako baba/ ta etxe-ko mermelada/ ezin daitezke konpara/ Eskuz egindako esku-bara/ ta berbenazko pomada/ Herriko dendak ziren bertako/ bizimoduaren islada».

Andresa Martinez de Ordoñana, bi urterekin Zegamatik Araiara joana, Zalduondora ezkondu zen XX. mendearen hasieran. Berak zabaldu zuen herriko denda bakarra, 1979an hil zen arte iraun zuena. Zaharra goa zen, Asparrenean, Albeizko denda-taberna edo «Geltokiko Kantina», XIX. mendean tren geltokiarekin bateratsu zabaldu zutena. Barrundia udalerriko Ozeta herrian, XX. mendearen hasieran denetarik saltzen zuten hiru denda zeuden, eta XIX. enaren amaieran Gervasia Eginok zabaldu zuena hurrengo mendearen hasieran Isasmendi janari-denda eta taberna izatera pasatu zen. Garai bertsukoa zen herri horretako Aureliaren denda.



Karmen Izagirre, «Atzo eta gaur» liburuaren egilea. GAUR8



Kinkila-saltzailea, Albeiz inguruko ihauterietan birstutu ohi duten pertsonaia. «ATZO ETA GAUR». AKE

Lopez de Munain anaiak, Arabako Mendialdean, aita erositako asto batekin herriz herri ibili ziren beren merkantzia saltzen, eta XX. mendearen erdialdean janari-denda bana zabaldu zuten Dulantzi udalerriko Egiletan eta Gasteizko ekialdeko landa eremuko Billafrankan. Luis Ozaetak eta Espe Sagastuik 50eko hamarkadan Bernedon zabaldu zuten

Romero janari-denda. 2008an itxi zuten. Erriberabeitiko Manzanosen, 80 urte iraun zuen Luisen tabernak, 2001. urtera arte, hain zuzen, eta ia mendebete Mujikatarren tabernak Ilarratzen. Santikurutze Kanpezun hogeitik gora saltoki zahar desagertu dira azkenengo hamarkadotan, eta askoz gehiago Langarikan, Menagarain, Urrunagan, Aramaion, Bi-

larren... Hamaika herri dendaren historia, ehunka eta ehunka pasadizo, mende bateko bizitzaren isla.

EGUN, EGOERA ZAILA

Ehunetik gora denda izan ziren Arabako herri txikietan; gaur egun haietatik dozena bat baino ez dago. Batzuk eraldatu egin ziren, gehienak ostalari-tzako negozio bihurtuta, baina

dendarik gabe. Karmen Izagirre In-txaurragak dioenez, iraganeko jardun hori orainera itzul liteke, orduko bizilagunen ondorengoez gainera, 80ko hamarraldetik aurrera joandako landatar berriek ere herrian elkargune haiek izan ditzaten.

Bestetik, herriko aitona-amonek igandeetan elizako atarian halako elkargunea dutela dio Intxaurragak, baina oraingo bizilagun gazteagoek ez, horrelako merkataritza gunea izan ezean. Leku horietan, garai honetara moldatuta, ohiko produktuak ez ezik, bertako produktuak ere saltzen saiatzen dira, merkataritza gune handietan aurkitzen ez direnak. Izan ere, familiako produkzio txikia ez da gune erraldoietara iristen, eta herrietako denda txikiak aproposak dira horrelako produktuak, produktu desberdin eta kalitatekoak, aurkitzeko, eta hori, Intxauragaren ustez, merkataritza gune handiek ez duten indarra da. Azkenaldion bertako produktuen aldeko kanpainak, elikadura burujabetzaren beharra, norabide horretako bultzada izan litekeela dio.

Gelditzen diren eta sortu berri diren bakanak bezalako denda gehiago lortzen badira, posible ikusten du herri txikien bizitza suspertzea. Ozetako denda dakar gogora, eta gero Done Bikendi Haranako Vito Etxea, «litxarrerria atal ikaragarria duena eta bertara inguruko haur guztiak biltzen dituen». Liburuan Vito Etxearen istorioa jasotzen da, nola bertan ohikoa zen jakiak fiantzan eman eta gero interesik gabe kobratzea. Zerbitzua zen, «zerbitzu solidarioa», dio Intxaurragak.

Ruiz Taberna Espejoko janari-dendak, betiko produktuez gainera, beste inon topatuko



ez direnak ere baditu. Mende-
bete ondo pasea du eta Jose
Manuel Orruño da haren ja-
bea, hirugarren belaunaldikoa.
Berarekin hitz egin dugu, joan
den mendearen parte handi
baten lekuko izan baitzen. La-
nik eza eta merkataritza gune
handiak aipatu ostean, «ez da
batere erraza», dio, eta bat da-
tor Karmen Intxaurragare-
kin: «Instituzioen lankidetzaz
ezinbestekoa da landa merka-
taritza suspertuko bada».

HERRIARENTZAT FUNTSEZKO

XXI. mendearen hasieratik do-
zena bat saltoki gehiago zabal-
du dituzte zenbait herri txiki-
tan. Esan bezala, merkataritza,
are gehiago herrixka horietan,
jardun ekonomikoa baino
gehiago da. «Herriari bizitza
ematen dion tresna da, hurbil-
tasuneko zerbitzua, bilgunea»,

Izagirreraren hitzetan. AKEk lan-
kidetzaz publiko eta pribatua
ezinbestekoa dela dio. «500
biztanletik beherako gizarte
txikietan aztertu egin behar
duzu zein diren beharrak eta
hutsuneak, eta errealtate ho-
rien arabera konponbideak
bilatu». Izan ere, leku batean bi-
deragarria dena, beharbada,
beste batean, ez.

Manzanosen argi ikusi dute
dute, gizarte etxeko tabernare-
kin batera, denda bat landa
merkataritza bultzatzeko pau-
so txiki bat izan litekeela. Aur-
ten zabaltzea aurreikusitako
kontzejuko Administrazio Ba-
tzarraren eta Foru Aldundiaren
laguntzaz.

Zenbait kanpaina egin ditu
AKEk landa merkataritza «bir-
sortze» aldera. Lehenengoa,
duela lau urte hasita, bideraga-
rritasun azterketa. Bizilagunen



iritzia jaso zuten; ondoren, lo-
kal publiko erabilgarriak dau-
den ikusi; zer salgai mota izan-
go diren, bertako produktuak,
edo, haurrak badaude, haien-
tzako produktuak... Bestetik,
arau subsidiarioak ere aztertu
zituzten, kasu askotan aldatu
egin behar direlako: esate bate-
rako, legediaren arabera gizar-
te etxe batean ezin da jardun
ekonomikorik egin, eta erreali-
tate horietara egokitu behar di-
ra arauak. Hornikuntza auke-
rak ere aztertu zituzten.

2015ean landa merkataritza
agerian jartzeko kanpaina egin
zuten eta hartarako logotipo
bat sortu zuten, honako eslo-
gan honekin: «Zaindu zeurea.
Con sumo cuidado». Landa

Ezkerrean, Luis
Fernandez de Larrea,
Manzanosko tabernako
nagusia, gurdi gainean,
inguruko herrietan
banaketa lanean. Goian,
Lourdes Herrador bere
dendan, bezero batekin,
Santikurutzeko Kanpezun.
«ATZO ETA GAUR». AKE

merkataritza txikia sustatzeko
katalogo bat eta bideo bat ere
egin zituzten.

Izagirrek dioenez, landa mer-
kataritzarekin konprometituen
dagoen jendea gaztea da, eta
Pobesko Goxo-goxo dendatxoak
aipatu du. Alazne haren jabeak
Gasteizen lan egiten zuen, eta,
langabezian geratu zenean, kal-
te-ordainak baliatuta, denda za-
baldu zuen. Lezan, berriz, berta-
ko Udalak denda baten falta
sumatuta, proiektu publiko-
pribatu baterako proposamen
bat luzatu zuen eta bizilagun
batek Udalak eskaintako lokal
bat hartu zuen errentan. Denda
bat egokitu eta aldameneko ta-
bernarekin akordio bat egin
zuen ogitartekoak saltzeko.

Horiek eta atzo eta gaurko
beste istorio asko hurrengo li-
buru batean argitaratu nahiko
lituzke AKEk bildutako mate-
rialarekin, beti lanerako prest,
eta, Manex Agirre bezala, bai-
kortasunez: «Begiratuta aurre-
ra/ biziberritze-aukera/ goazen
aprobetxatzen. Sartzen baza-
ra landaguneko/ betiko denda
batera/ gerriak bere altzoan
hartu/ bazintu bezalaxe da».

**Janariak, arropak, lanabesak, tabakoa... eta gaur
egun horrelako lekuetan pentsaezinak diren
zerbitzuak eskaintzen zituzten: posta, telefonoa
eta are, zenbait kasutan, mediku kontsulta ere**

**Zenbait kanpaina egin ditu Arabako Kontzejuen
Elkarteak landa eremuko merkataritza
«birsortze» aldera. Lehenengoa, duela lau urte
hasita, bideragarritasun azterketa**